

Boluntarioen gida



mundukide
kooperazio kooperatiboa
cooperación cooperativa



aurkibidea

1.	Zer da Mundukide?	03
2.	Zer da Mundukideko boluntario izatea?	05
3.	Zein da boluntarioen rola Mundukiden?	07
4.	Pertsona boluntarioen profila	09
5.	Boluntarioen eginkizunak eta erantzukizunak	09
6.	Boluntarioen eskubideak eta betebeharrak	11

Mundukide Fundazioa
Zarugalde, 30 | 20500 Arrasate-Mondragón
Tel. 943772010
www.mundukide.org


Arrasate, azaroak 2018
Lege gordailua: SS 423-2016
Cyclus Print paper birziklatuan inprimatua



1. Zer da Mundukide?

MUNDUKIDE FUNDAZIOA, Hegoaldeko herrialdeetan garapen autogestionatua eta integrala bultzatzeko sortutako proiektua da, esperientzia kooperatiboaren jakituria eta bitartekoak elkarbanatuz.

1999 urtean sortua, **interkooperazio sistema** eraikitzen du Mondragon-eko eragile ezberdinak elkartuaz, garapen sozioekonomikoa indartzeko programak bultzatuaz.



“Mundukideren balioak” landuz; hots:



- 1 | **Elkartasun unibertsala:** Mundukiden parte hartzen dugunon lanak oinarri du elkartasuna, bai ekonomia solidarioan garatutako beste esperientzia batzuekiko eta baita demokrazia sozialaren alde dihardutenekiko ere, bake, justizia eta garapen helburuak partekatuz.
- 2 | **Lana:** Ekintza eraldatzaile gisa hartzen dugu lana, aldaketa-ekintza bezala, garapena lortzeko bide moduan. Mundukiden uste dugu lana bera ere balorea dela, eta kapitalaren gainetik dagoela.
- 3 | **Eraldaketa soziala:** Mundukidetik pertsona eta jendarte bidezkoagoetara aldatzea bilatzen dugu, eta norbere buruaren kudeaketa maila altuagoetara arlo guztietan, genero-harremanak barne; ikuspuntu horretatik, autonomia funtsezkoa da; pertsona, elkarte eta herri bakoitzak erabaki dezan nolako jendartea izan nahi duen.



2. Zer da Mundukideko boluntario izatea?

Mundukideko **boluntarioa** da emakume bat, edo gizon bat, bere denboraren zati bat **dohainik, eskuzabalki eta solidarioki** Mundukideren **misioa, printzipioak, balioak eta helburuak** garatzeko lanari eskaintzea askatasunez erabaki duena, eta bere **esperientzian eta ezagutzetan oinarrituz modu aktiboan parte hartzen** duena.



Jose Mari Larrañaga eta Jose Antonio Mendikute, "Lidergotza eta Ekintzailatza Formakuntza" kurtsoetan, Gestio Kooperatibo alorreko irakasleak izan dira 10 urtetan zehar Kubako programan.



Pili Makazaga, Elena Arenaza eta Alberto Trojaola
Arrasateko bulegoan gestio lanetan.



3. Zein da boluntarioen rola Mundukiden?

- 1 | **Lagungarria** da kudeaketa lanetan.
- 2 | **Lagun** egiten du programen garapenean.
- 3 | **Lagungarria** da prestakuntza arloan.
- 4 | Ideien eta edukien **ekarpena** egiten du.
- 5 | **Prestigioa eta koherentzia** ematen ditu.
- 6 | Erakundeari **errekonozimendua** ematen dio.
- 7 |



Boluntarioek gogotsu eskaintzen dute beren denbora, harremanak bilatzen dituzte, beren esperientziak, ezagutzak eta trebetasunak eskaintzen, eta horren guztiaren emaitza zera da: Mundukiderekiko **konpromisoa** eta **erantzukizuna**.



Fundazioa aberasgarria da bere boluntarioentzat:

- 1 | **Parte hartze** indibidual eta kolektiboko espazioak sustatzen ditu.
- 2 | **Erantzukizun** sozialez jarduteko tresnak ematen ditu.
- 3 | **Informazioa** ematen du, eta prestakuntza programetan eta anbizio handiko proiektu sozial eta errealetan murgilarazten gaitu.
- 4 | **Ezagutzak** eta esperientziak partekatzen ditu, eta trebetasun berriak eskaintzen.
- 5 | **Lana** aintzat hartzen du.
- 6 | **Une** atseginak sorrarazten ditu, Mundukide Fundazioko lantaldeen arteko adiskidetasunaren pizgarri.



Begoña Santamaria eta Imanol Igeregi Brasilgo programan lanean MST gisa mugimenduarekin batera.



4. Pertsona boluntarioen profila

Mundukidek bilatzen dituen boluntarioek Hegoaldeko herri pobretuekin kooperatzeko **sentsibiltatea** izan behar dute, beren **denbora librearen zati bat eskaintzeko** moduan egon behar dute eta esperientzia edota ezagutza partekatzeko prest egon behar dute Fundazioaren jarduerari **balio erantsia** eman diezaioketen eginkizunetan.

5. Boluntarioen eginkizunak eta erantzukizunak

Mundukiden, boluntarioek **laguntza, aholkularitza eta lagun egite** lanetan jardungo dute Fundazioaren **plan estrategikotik eratorritako** programa eta prozesuetan, daukaten esperientzia dela-eta halaxe eskatzen zaienean (kudeaketan, antolaketan, kooperatibismoan, etab.).

Boluntarioen koordinatzaileak ordezkatuko ditu boluntarioak Fundazioaren organoetan, zeinak, gainera, boluntarioen prestakuntza beharrak, informazio beharrak eta bestelako premiak bideratuko dituen.

Boluntarioak egiten duen ekarpenaren baldintzak borondatezko **lankidetzak hitzarmen** indibidualizatuan jasota geratuko dira, non alde biek adostuko dituzten zer lan egingo diren, kalkuluen arabera lanek zer dedikazio eta zer iraupen izango duten, eta baita boluntario bakoitzak eta Mundukidek zer betebeharrak hartzen dituzten beren gain ere.



Begoña Santamaria, MSTko asentamentuetako
nekazal produktuen komertzializazio lanetan.



6. Boluntarioen eskubideak eta betebeharrak

Hona hemen Fundazioak bermatzen dizkigun **eskubideak**:

- 1 | Fundazioari buruzko **informazioa** egokia jasotzea.
- 2 | **Laguntza teknikoa, giza laguntza** eta **prestakuntza laguntza** jasotzea.
- 3 | **Fundazioan** parte hartzea.
- 4 | **Erronken, prozesuen eta programen** diseinuan kolaboratzea.
- 5 | Tratu **ez-diskriminatzaile eta justua** jasotzea, **pertsonen** askatasuna, duintasuna, intimitatea eta ideiak errespetatuz.
- 6 | Kontratatutako pertsona batek jasotzen duenaren **pareko arreta pertsonala** jasotzea.
- 7 | **Segurtasun** eta **higiene baldintzetan** lan egitea.
- 8 | Boluntarioak egindako ekarpen soziala **errespetatua** izatea eta horren **errekonozimendua** jasotzea.
- 9 | **Lana askatasunez utzi ahal izatea**, aldez aurretik jakinarazi ondoren.
- 10 | **Kalte-galerengatik** **aseguru** baten estaldura edukitzea.
- 11 | Boluntarioek egin litzaketan **gastuak ordaintzea**.
- 12 | Eta **indarreko ordenamendu juridikoak** boluntarioei errekonozitzen dizkien beste eskubide batzuk.



Hona hemen boluntarioen **betebeharrak**:

- 1 | **Fundazioaren misioa** defendatu eta sustatzea.
- 2 | **Erronka, prozesu eta programetan** lagundu eta parte hartzea.
- 3 | **Fundazioaren organoetako** kide izatea eta bertan **parte hartzea**.
- 4 | Egin beharreko zereginetan **arduraz** jardutea.
- 5 | Parte hartzea ahalbidetzea eta **taldean lan egitea**.
- 6 | **Hartutako konpromisoak** betetzea.
- 7 | Eskatutako **prestakuntza jardueretan** parte hartzea.
- 8 | Hartzen diren **segurtasun eta higiene** arauei jarraitzea.
- 9 | Pertsonen **eskubideak errespetatzea**.
- 10 | **Konfidentzialtasunari** eustea.
- 11 | **Baliabideak** zaintzea.
- 12 | **Boluntario akreditazioa** egoki erabiltzea.
- 13 | Eta **indarreko ordenamendu juridikoak** boluntarioei errekonozitzen dizkien beste betebeharrak batzuk.



Boluntario taldea Arrasateko bulegoan bilduta.

